# *T-IKER INIZIA* SARIAREN II. EDIZIOAREN DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

## 1.- HELBURUAK

Deialdi honen helburuak honako hauek dira:

- UPV/EHUren Arabako Campuseko ikertaldeetan sortutako berrikuntza merkatura transferitu dadila sustatzea.
- Unibertsitateko ikertzaileen artean enpresaren kultura bultzatzea eta hedatzea.
- Unibertsitatearen ahalmen berritzailea ustiatzea enpresa berriak sortzeko.

## 2.- XEDEA

Deialdi honen bidez, honako ikerketa poriektu hauek saritu nahi dira: enpresa ekimen berritzaile zein ideia edo enpresa berritzaile edotа oinarri teknologikodun enpresa bilakatzeko aukerarik gehien dutenak eta 4. oinarrian aipatutako pertsonek sustatuta daudenak.

## 3.- SARIAK

Hiru sari emango dira: lehenengo saria, 2.000 eurokoa, eta bi accesit, diru saririk gabekoak.

Horrez gain, hiru saridunek Inizia Arabacampuseko langile adituen laguntza jasotzeaz gain, **70.000 eurorainoko diru sari bat ere eskuratu ahal izango dute**, BIC ARABAk kudeatutako eta Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko SPRIk gauzatutako laguntzen bidez (Emprender en Álava eta EKINTZAILE programak), proiektuak garatu eta abian jartzeko.

# BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA DE LA II EDICIÓN DEL PREMIO *INIZIA T-IKER*

## 1.- OBJETIVOS

Los objetivos de la presente convocatoria son:

- Potenciar la transferencia al mercado de la innovación generada en los equipos y/o grupos de investigación del Campus Araba de la UPV/EHU.
- Apoyar y difundir la cultura empresarial entre el colectivo investigador universitario
- Aprovechar el potencial innovador de la universidad para la futura generación de nuevas empresas.

## 2.- OBJETO

Mediante la presente convocatoria se pretenden premiar aquellos proyectos de investigación que tengan más posibilidades de convertirse en innovadoras iniciativas empresariales o en ideas o empresas innovadoras y/o de base tecnológica que sean promovidas por las personas a las que se refiere la Base 4.

## 3.- PREMIOS

Se otorgarán tres premios: un primer premio dotado con 2.000 euros y dos accésits sin dotación económica.

Los tres premiados recibirán adicionalmente el apoyo experto del personal de Inizia Arabacampus **junto a una posible dotación de hasta 70.000 euros**, a través de las ayudas gestionadas por BIC ARABA, y articuladas por la Diputación Foral de Álava y la SPRI del Dpto. Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco (Programas Emprender en Álava y EKINTZAILE) para el apoyo al desarrollo y puesta en marcha de los proyectos.

Sariak emateko ekitaldi bat egingo da.

La entrega de los premios tendrá lugar en un acto específico convocado al efecto.

Epaimahaiak hala erabakiz gero, sariak eman gabe utzi ahal izango dira.

A estimación del jurado, los premios podrán declararse desiertos.

**4.- PARTE HARTZAILEAK**

**4.- PARTICIPANTES**

Sari honetan parte hartu ahal izango dute UPV/EHUren Arabako Campuseko ikertaldeek.

Podrán tomar parte en este premio los equipos y/o grupos de investigación ubicados en el Campus Araba de la UPV/EHU.

**5.- HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.**

**5.- PLAZO DE PRESENTACIÓN DE CANDIDATURAS. DOCUMENTACIÓN A APORTAR.**

Hautagaitzak aurkezteko epea **2020ko azaroaren 22an** amaituko da, eta dokumentazio hau aurkeztu behar da:

1. Eskaera, behar bezala beteta, agiri honen **I. eranskinaren** arabera.
2. Proiektuaren laburpena, **II. eranskineko** gidoi-ereduaren arabera. Aurkezten den dokumentazioak, gehienez ere, 15 folio izango ditu.
3. Ikertaldeko kide bakoitzaren ***curriculum vitae*a.**

El plazo de presentación de candidaturas finalizará el **22 de noviembre de 2020**, debiendo presentarse la siguiente documentación:

1. Solicitud debidamente cumplimentada conforme **Anexo I** que se adjunta.
2. Resumen del proyecto, según modelo-guion que se adjunta como **Anexo II.** La extensión de la documentación a presentar no deberá exceder, en todo caso, de 15 folios.
3. **Breve Curriculum vitae** de las personas integrantes del equipo y/o grupo de investigación.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluaren arabera, hautagaitzaren batek aurreko atalean adierazitako dokumenturen bat aurkeztu ezean, edo dokumentazioa oker aurkeztuz gero, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela.

De acuerdo con el artículo 68 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, si en alguna de las candidaturas no se aportara alguno de los documentos señalados en el apartado anterior, o la misma fuera presentara de manera defectuosa, se requerirá al/los solicitante/s para que en un plazo de diez días, subsane/n la falta o acompañe/n los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le/s tendrá/n por desistido/s de su petición.

## 6.- ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA

Eskaera eta eranskinak Arabako Campuseko Errektoreordetzako edo Campuseko ikastegietako Erregistro Orokorreko bulegoetan aurkeztu beharko dira, ordutegi honetan: astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30era; ostiraletan, 9:00etatik 13:00etara.

UPV/EHUren Erregistro Orokorreko gainerako bulegoetan ere aurkeztu ahal izango dira, hau da, UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2018ko maiatzaren 21eko Erabakiaren —UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulegoen zerrenda eguneratua argitaratzekoaren— II. eranskinean aipatzen direnetan; baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak 16. artikuluan ezarritako moduan ere.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 945 014307 telefonora edo idatzi ar-praktikak@ehu.eus helbidera (Arabako Campuseko Errektoreordetza).

## 6.- LUGAR DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Las solicitudes y sus anexos deberán presentarse en las oficinas del registro general del Vicerrectorado del Campus de Álava o de los Centros del Campus de Álava, en horario de 9.00 a 13.00 y de 15.00 a 16.30 horas de lunes a jueves y de 9.00 a 13.00 los viernes.

También será posible su presentación en cualquiera de las oficinas de Registro General de la UPV/EHU que figuran en el Anexo II de la Resolución del Secretario General de la UPV/EHU, de 21 de mayo de 2018, por la que se procede a publicar la relación actualizada de oficinas de Registro de la UPV/ EHU, así como en la forma prevista en el artículo 16 de la Ley de 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Para más información, teléfono 945 014307 ó ar-praktikak@ehu.eus del Vicerrectorado del Campus de Álava.

## 7.- HAUTAGAITZAK BALORATZEA

### 7.1.- Epaimahaia

Arabako Campuseko errektoreordeari dagokio sarien eta accesiten gaineko erabakia ematea, epaimahaiaren proposamena jaso ondoren. Honako hauek izango dira epaimahaia osatuko duten kideak:

- Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzako ordezkari bat.
- Ekintzailetzan aditua den UPV/EHUko irakasle bat.
- Arabako Campusaren Garapenerako eta Kanpo Harremananetarako zuzendaria, edo hark eskuordetutako pertsona.
- Arabako Eraberrikuntza Industrialdeko (BIC Araba)

## 7.- VALORACIÓN DE CANDIDATURAS

### 7.1.- Jurado

La resolución del fallo de los premios y accésit corresponderá al Vicerrector del Campus de Álava, previa propuesta del jurado, el cual estará compuesto por:

- Un/a representante del Vicerrectorado de Proyección y Transferencia
- Un/a profesor/a de la UPV/EHU experto/a en emprendizaje.
- Director/a de Desarrollo de Campus y Relaciones Externas del Campus de Álava, o persona en quien delegue.
- Un/a representante del el Centro de empresas e Innovación de Álava (BIC

ordezkari bat.

Araba)

**7.2.- Balorazio irizpideak**

Hautagaitzak aurkezteko epea amaitutakoan eta bosgarren atalean aipaturiko dokumentuak aurkeztu direla egiaztatu ondoren, epaimahaiak aurkeztu diren proiektuak baloratzeari ekingo dio, honako irizpide eta puntuazio hauen arabera:

a) Proiektuaren izaera berritzailea. Gehienez 35 puntu.

b) Proiektuaren emaitzak transferitzearen eragina eta merkatu potentziala. Gehienez 35 puntu.

c) Kontrastea eta kanpoko aitortzak. Gehienez 15 puntu.

d) Talde sustatzailearen konpromisoa eta esperientzia, eta berrikuntzak sortzeko gaitasuna (15 puntu).

**Gutxienez 50 puntu** lortzen dituzten proiektuak bakarrik saritu ahal izango dira.

Epaimahaiak saria eta accesitak eman gabe uztea proposatu ahal izango du baldin eta proiektuek eskatzen den gutxieneko puntuaziorik lortzen ez badute.

Halaber, proiektuak baloratzeko, aurkeztutako dokumentazioari buruzko argibideak ematea edo dokumentu gehiago aurkeztea eskatu ahal izango du epaimahaiak, baita parte hartzaileekin elkarrizketa pertsonalak egitea ere, beharrezko ikusiz gero.

**7.3.- Sarituak proposatzea**

Proiektuak aurreko ataleko irizpideen arabera baloratu ondoren, epaimahaiak, hala badagokio, hiru puntuazio onenak lortu dituztenei saria ematea proposatuko du.

Epaimahaiak sariak emateko eginiko proposamena Arabako Campuseko errektoreordeari helaraziko zaio, hark

**7.2.- Criterios de valoración**

Finalizado el plazo de presentación de candidaturas, y verificada la aportación de los documentos a que se refiere el apartado cinco, el jurado procederá a valorar los proyectos presentados de acuerdo con los siguiente criterios y puntuaciones:

a) Carácter innovador del proyecto. Máximo 35 puntos.

b) Impacto de la transferencia de los resultados del proyecto y potencial de mercado. Máximo 35 puntos.

c) Contraste y reconocimientos externos. Máximo 15 puntos.

d) Experiencia y compromiso del equipo promotor y su capacidad para generar innovaciones (15 puntos).

Sólo podrán ser premiados los proyectos que alcancen una **puntuación mínima de 50 puntos**.

El jurado podrá proponer que se declaren desiertos el premio y o accésits si no hubiera un número suficiente de proyectos que alcancen la puntuación mínima exigida.

Asimismo, para la valoración de los proyectos, el jurado podrá solicitar la ampliación o aclaración de la documentación presentada, así como mantener entrevistas personales con aquellos/as participantes que considere pertinente.

**7.3.- Propuesta de premiados**

Valoradas los proyectos conforme los criterios del apartado anterior, el jurado propondrá, en su caso, la concesión de los premios a favor de aquellos que hayan obtenido las tres mejores puntuaciones.

La propuesta del jurado para la concesión de los premios, se elevará al Vicerrector del Campus de Álava para su resolución, que será

erabakia eman dezan (erabaki hori INIZIAren web gunean argitaratuko da).

Arabako Campuseko errektoreordeak sariei buruz emandako erabakiaren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman zuen organoari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke dagokion administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

## 8.- SARIAK JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

Sariaren zenbatekoa saritutako proiektuaren garapenarekin **zuzenean lotutako jarduerek edota zerbitzuek** eragindako gastuak ordaintzeko izango da eta **eragiketa bakarrean ordainduko da**.

Sariaren zenbatekoa jarduera edota zerbitzu horietan erabili dela justifikatzeko, jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira **2020ko abenduaren 31 baino lehen**; jasotako sariaren diru kopurura iritsi behar dute, gutxienez.

Justifikazio agiri horiek **2021ko abenduaren 31a baino lehen** aurkeztu beharko dira, agiri honi erantsitako ereduaren **(III. eranskina)** arabera, 6. oinarrian aipatutako bulegoetan.

Gastuak justifikatzeko epea amaitutakoan, gastu horiek jasotako sariaren xede diren jarduera edota zerbitzuetan egin direla egiaztatuko du epaimahaiak, eta, hala badagokio, gastuok ordaindu egingo dira.

Aldiz, epaimahaiak gastu guztiak edo batzuk beste zerbaitetan egin direla egiaztatzen badu, gastu horiek justifikatu gabekotzat hartuko dira, eta galdu egingo da saria jasotzeko eskubidea.

Sariari dagozkion atxikipena eta konturako sarrerak aplikatuko zaizkio. Nolanahi ere, irabazleen ardura izango da aitorpena egitea eta aplikagarri zaizkien zerga betebeharrak onartzea.

publicada en la página web de INIZIA.

Contra la resolución del Vicerrector del Campus de Álava resolviendo la concesión de premios podrá interponerse recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación ante el mismo órgano que lo dictó, o bien directamente, recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo correspondientes en el plazo de dos meses a contar, igualmente, desde el día siguiente al de la notificación.

## 8.- JUSTIFICACIÓN Y PAGO DE PREMIOS

El importe del premio debe ir destinado a sufragar los gastos originados por **actividades y/o servicios directamente vinculados** al desarrollo del proyecto premiado. El pago del premio **se realizará de una sola vez**.
La utilización del importe del premio en dichas actividades y/o servicios deberá ser **anterior al 31 de diciembre de 2020** y requerirá la presentación de las facturas originales, que tendrán que alcanzar, como mínimo la cuantía del premio concedido.

Dichos justificantes deberán presentarse **antes del día 31 de enero de 2021** conforme el modelo que se adjunta **(Anexo III)** en las oficinas a las que se refiere la base 6.

Finalizado el plazo para la presentación de la justificación de gastos, el jurado verificará que los mismos tienen su origen en las actividades y/o servicios para los que el premio fue concedido, procediéndose, en su caso, al pago de los mismos.

Si por el contrario el jurado verificara que el origen de todos o de algunos de los gastos es otro diferente, éstos se tendrán por no justificados, perdiéndose el derecho a la obtención del premio.

Al premio se le aplicarán la retención e ingresos a cuenta que en su caso procedan, siendo, en todo caso, responsabilidad de los/las ganadores/as, declarar y asumir las obligaciones fiscales que les sean de

aplicación.

**9.- UPV/EHUren ALDEKO BAIMENAK**

Proiektuak aurkeztearekin batera, UPV/EHUri baimena ematen zaio proiektu horien izenburua eta gaia eta proiektuen egileen izenak zabaltzeko —edozein hedabideren bitartez—. Unibertsitateak aurkezten diren proiektuen edukiaren konfidentzialtasuna bermatuko du.

**9.- AUTORIZACIONES A FAVOR DE LA UPV/EHU**

La presentación de los proyectos supondrá la autorización a favor de la UPV/EHU, para la difusión -por cualquier medio- del título y materia sobre la que los mismos versen, así como de la identidad de sus autores, manteniéndose por parte de la Universidad la confidencialidad del contenido del proyecto presentado.

**10.- OINARRIAK ONARTZEA ETA GORABEHERAK**

10.1.- Parte hartzaileek, deialdian parte hartzearekin batera, deialdian zehazturiko baldintza guztiak onartzen dituzte, eta haien menpe geratzen dira.

10.2.- Gerta daitezkeen gorabeherak eta oinarri hauetan aurreikusi gabeko egoerak epaimahaiak ebatziko ditu, eta, prozedura aldetik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea aplikatuko da.

10.3.- Arabako Campuseko Errektoreordetzak deialdi hau behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu.

**10.- ACEPTACIÓN DE LAS BASES E INCIDENCIAS**

10.1.- Los/as participantes, por el mero hecho de tomar parte en esta convocatoria, aceptan todas las condiciones que se especifican en la misma y se someten expresamente a ellas.

10.2.- Las incidencias que puedan presentarse, así como los supuestos no previstos en estas bases serán resueltas por el jurado, siendo de aplicación en materia de procedimiento la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

10.3.- El Vicerrectorado del Campus de Álava adoptará las medidas oportunas para el correcto desarrollo de esta convocatoria.